

Urteko 8. Igandea (C)

LEHENENGO IRAKURGAIA

Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen, horretan probatzen baitira gizakiak.

Ben Sirak liburutik 27, 4-7

Galbaheari eragindakoan hondarrak agertzen dira,
eta azterketa egitean gizakiaren akatsak.

Labeak probatzen ditu eltzegilearen ontziak,
eta beronen arrazoiketak gizakiaren balioa.

Fruituak erakusten du nola zaindu duten arbola,
eta hitzak gizakiaren barruko gogoetak.

Ez goratu inor hitz egiten entzun baino lehen,
horretan probatzen baitira gizakiak.

Jaunak esana.

SALMOA

Salmoa 91, 1-2. 12-13. 14-15

R.

Bai eder, Jauna, zu gorestea.

Bai eder, Jauna, zu gorestea
eta Goi-goiko hori kantuz ospatzea,
goizean zure maitasuna iragartzea,
gau osoan zure leialtasuna, **R.**

«Zintzoa palmondoa bezala garatuko da,
Libanoko zedroa bezala haziko;
Jaunaren etxean landaturik,
gure Jainkoaren ondoan garatuko da. **R.**

Zaharturik ere fruitu emango du,
mardul eta heze iraungo beti,
Jauna zuzena dela iragartzeko,
nire harkaitza, gaiztakeriarik gabea». **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA

Eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari, halako garaipena ematen digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 15,54-58

Gure izate ustelkorra bizi ustelezinez jantziko denean, eta izate hilkorra hilezkortasunez, orduan beteko da Liburu Santuak dioena :

*Behin betiko galdua
gertatu da heriotza.*

Non duk , Herio, heure garaipena?

Non heure eztena?

Heriotza dakarren eztena bekatua da, eta bekatuak legetik hartzen du bere indarra .
Eman diezazkiogun eskerrak Jainkoari, halako garaipena ematen digulako Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez!

Beraz, senide maiteok, ez aldatu asmoz eta iraun sendo, egunetik egunera Jaunaren lanean gero eta gogotsuago jardunez, jakinik Jaunak ez duela zuen nekea saririk gabe utziko.

Jaunak esana.

Aleluia Flp 2, 15d. 16a

Aleluia, aleluia.

Gizarte honetan izarrek munduan bezala egiten duzue argi,
bizia ematen duen mezuari tinko eutsiz. Aleluia.

EBANJELIOA

Ona denak ona ateratzen du bere barneko ontasun-altxorretik.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-45

Eta parabola bat ere esan zien: «Itsua itsuaren gidari izan ote liteke? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi eskolaturiko ikaslea irakaslea adina izango da.

«Nola ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko hagaz ohartzen ez? Nola esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, utzi begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun haga ikusten ez duzula? Itxurazale hori! Kendu lehenengo zeure begitik haga, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko.

«Ez dago zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarrik ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; ez da arantzatik pikurik biltzen, ezta sasitik ere mahatsik hartzen. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ontasun-altxorretik; eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik. Ahoak esan, bihotzari gainezka darionetik esaten baitu.

Jaunak esana.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>